



sortu

ESPACIO

Galderak

FUTURE

ideas

Preguntas

URVIEHU

$E=mc^2$

DISCOVER

Ideiak

ecología

Solución

Learning

Ikasi

berrikuntza

CREATION

SOCIEDAD

Arte Eszenikoak

USE 2018

www.ehu.eus

literature

40% 30% 60%



**ARTE ESZENIKOAK**

**ARTES ESCÉNICAS**

***Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.  
Ez ahaztu azterketako orri bakoitzean kodea jarri behar duzula.***

Azterketa egiteko, 90 minutu dituzu. Azterketako bi aukerek atal berberak dituzte (hiruna atal):

**1. atala. Obraren iruzkina eta analisisia**

**(4 puntu)**

Alderdi hauen arabera egin behar dira iruzkina eta analisisia:

- a) Obraren estilo- eta argumentu-ezaugarrien azterketa.
  - Antzerki-generoa (0,5 puntu).
  - Argumentua eta obran ageri den gatazka nagusia (0,5 puntu).
  - Iritzi pertsonala, aztertutako obrari buruzko argudio teknikoetan oinarritua (0,5 puntu).
  - Argumentu horrek gaurkotasuna duen ala ez (0,5 puntu).
- b) Egoera eta testuinguruaren karakterizazioa.
  - Obraren fitxa: egilea, garaia, kokapen geografikoa (0,5 puntu).
  - Egilearen ideia artistikoak (0,5 puntu).
  - Aztertutako obra zer alderdi soziokultural eta estetikotan kokatzen den (0,5 puntu).
  - Garai horretako antzerki- eta arte-korronteak (0,5 puntu).

Antzerki-obraren iruzkinean eta analisisian, alderdi hauek balioetsiko dira: koherentzia eta kohesioa, aberastasun lexikoa, hizkuntza-adierazpen egokia, zuzentasun ortografikoa eta gaiaren oinarriari buruzko ezagutzak.

**2. atala. Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gainekeo testu labur bati buruzko iruzkina**  
**(3 puntu)**

Testu-iruzkina orri betekoa izango da gehienez, eta alderdi hauek aztertu behar ditu:

- Testuko ideia nagusiak eta bigarren mailako ideiak identifikatzea (1 puntu).
- Testuan agertzen diren zenbait hitz edo termino tekniko estetiko edo interesgarri adieraztea eta azaltzea (1 puntu).
- Testuan ageri diren ideiei buruzko iritzi pertsonala, zure eszenaratze-esperientzietan oinarritua (1 puntu).

**3. atala. Termino teknikoei buruzko galderak**

**(3 puntu)**

Erantzunek argiak eta laburrak izan behar dute. Bost lerro nahikoak dira bakoitzeko. Zuzentasun terminologikoa eta sintaktikoa balioetsiko da, eta gehienez 0,5 puntu emango zaio bakoitzari.

## A AUKERA

### 1. atala. Iruzkina eta azterketa.

(4 puntu)

Bertolt Brecht: *Hirugarren Reicharen izua eta miseria («Furcht und Elend des Dritten Reiches»)*

### 2. atala. Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu bati buruzko iruzkina

(3 puntu)

Calderón de la Barca: *Bizitza ametsa da*

### 3. atala - Termino tekniko hauek definitzea

(3 puntu)

1. Zapalduaren antzerkia
2. Katarsia
3. Pantalone
4. Pastoral
5. Besaulki-patioa
6. Protagonista

## B AUKERA

### 1. atala. Iruzkina eta azterketa

(4 puntu)

M. Mihura: *Hiru xistera*

### 2. atala. Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu bati buruzko iruzkina

(3 puntu)

Samuel Becket: *Godoten zain*

### 3. atala - Termino tekniko hauek definitzea

(3 puntu)

1. Biomekanika
2. Naturalismoa
3. Politxinela
4. Maskarada
5. Ezkutatu
6. Koreografoa



**ARTE ESZENIKOAK**

**ARTES ESCÉNICAS**

**A AUKERA**

**Irutzkina eta azterketa**

*Hirugarren Reicharen Izua eta Miseria («Furcht und Elend des Dritten Reiches»)*

Egilea: Bertolt Bretch

**ESKULANA KONTRATATZEA**

*Lana ematen dutenak hemen dira.*

*Kakalardo bat da gizakia,*

*Haiek lotsarik gabe ziztatua.*

*Lurra behar du ernaldu*

*Eta haien gerra-makina atondu*

*Bere odol eta izerdiz elikatua.*

*Spandau, 1937. Langile batek, etxera itzultzean, bizilaguna aurkitu du.*

BIZILAGUNA: Gabon, Fenn jauna. Zure emazteari ogi pixka bat eskatu nahi diot.

Irten egin da une batez.

GIZONA: Atsegin handiz, Dietz andrea. Zer iruditzen zaizu lortu dudan lanpostua?

BIZILAGUNA: Bai, orain guztiek dute lana. Motor-fabrika berrietan zaude zu, ezta?

Bonbardaketariak egingo dituzte han?

GIZONA: Gero eta gehiago eta gehiago.

BIZILAGUNA: Espainian behar dituzte.

GIZONA: Zergatik, zehazki, Espainian?

BIZILAGUNA: Gauza asko esaten dira hara bidaltzen denari buruz. Lotsagarria da.

GIZONA: Kontuz ibili zer esaten duzun.

BIZILAGUNA: Zu ere haien alde zaude?

GIZONA: Ni ez nago inoren alde. Nire lana egiten dut. Nora joan ote da Martha?

[...]

GIZONA: Hara! (*dei egiten du*) Martha!

*Emaztea sartzen da. Lutoz jantzia.*

GIZONA: Zer gertatzen zaizu? Nor hil da?

EMAKUMEA: Franz. Gutun bat iritsi da.

*Gutun bat ematen dio.*

BIZILAGUNA: Jainko maitea! Zer gertatu zaio?

GIZONA: Istripu bat izan da.

BIZILAGUNA: (*Fidakaitz.*) Hegazkin-pilotua zen, ezta?

GIZONA: Bai.

[...]

BIZILAGUNA: Oso ondo estaltzen dute dena. Ekintza heroikotzat hartzen dute egia ez zabaltzea. Alkatetzako batek harro esaten zuen zein zuhurki ezkutatzen duten beren gerra. Bonbardaketari horietako bat botatzen dutenean eta barrukoek paraxutean salto egiten dutenean, beste bonbardaketarietatik tiro egiten diete airetik beren kideei,



Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
EBALUAZIOA

2018ko EKAINA

EVALUACIÓN PARA EL  
ACCESO A LA UNIVERSIDAD

JUNIO 2018

## ARTE ESZENIKOAK

## ARTES ESCÉNICAS

aukerarik izan ez dezaten gorriei [Espainiako errepublikarrak] esateko nondik datozen [Alemania].

EMAKUMEA: (*ondoezik jartzen ari da.*) Emadazu ura, Herbert, mesedez, ondoezik nago oso.

BIZILAGUNA: Ez zintudan gehiago aztoratu nahi, baina, dena estaltzen dute-eta! Oso ondo dakite krimen bat dela eta beren gerra ezkutatu behar dutela. Baita hemen ere. Istripua ariketak egitean! Zer ariketa? Gerra-ariketak!

GIZONA: Behintzat, ez ezazu hain ozen hitz egin. (*Bere andreari.*) Hobeto al zaude?

BIZILAGUNA: Zu ere hildakoen moduan isiltzen den horietakoa zara. Gutun horretan duzu froga!

GIZONA: Isilduko al zara behingoz?

EMAKUMEA: Herbert!

BIZILAGUNA: Bai, behingoz isil nadin! Lana aurkitu duzulako! Baina zure koinatuak ere bai! Hain zuzen ere, «istripua» izan du motor-fabrikari egiten diren gauza horietako batekin.

GIZONA: Hori gehiegizkoa da, Dietz andrea. Holako gauzetan lan egiten dudala esaten duzu! Eta zertan lan egiten dute besteek? Zertan lan egiten du zure senarrak? Lanparatan, ezta? Eta ez al da hori gerrarako? Argiztatzeko baino ez da! Baina, zertarako da argiztapena? Zer argiztatzen du? Argiztatzen al dira tankeak? Edo gerraontziak? Edo gauza horietako bat? Berak lanparak besterik ez du egiten! Ene Jainkoa! Jada ez dago gerrarako ez den ezer ere! Non aurkituko ote dut lana neure buruari esaten badiot: baina ez dadila izan gerrarako! Goseak hil beharko ote dut?

BIZILAGUNA: (*Kikilduta.*) Nik ez dut esaten goseak hil behar duzunik. Lana onartu behar duzu, jakina. Kriminal horiei buruz bakarrik ari naiz. Eskulan-kontratazio ederra da!



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
EBALUAZIOA

2018ko EKAINA

ARTE ESZENIKOAK

EVALUACIÓN PARA EL  
ACCESO A LA UNIVERSIDAD

JUNIO 2018

ARTES ESCÉNICAS

## A AUKERA

**Antzerki-teoriaren edo kritikaren gaineko testu bati buruzko iruzkina**

*Bizitza ametsa da* obraren kritika- Autorea: Calderón de la Barca.

Zuzendaria: Carles Alfaro Artezblai - Irène Sadowska (2017ko apirilaren 22a)

<http://www.artezblai.com/artezblai/la-vida-es-sueno-calderon-de-la-barca-carles-alfaro.html>



Argazkia: <http://www.artezblai.com/artezblai/images/alfarovida.jpg>

### **Calderónen sinfonia laukote birtuoso bihurtua.**

Bizitza ametsa da ala amesgaiztoa? Galdera ugari sortzen dira *Bizitza ametsa da* obran, bizitzari buruz, errealitateari eta itxurari buruz, askatasunari (nor da bere patuaren jabe?) eta gizarte-beharrari buruz, hots, estatuaren arrazoiari buruz, baina erantzunik gabe gelditzen dira. Bere eszenaratzean, Calderónen obraren kintaesentzian, gatazkagunean, jartzen du fokua Carles Alfarak, eta dimentsio filosofikoa, existentziala, ematen dio.

[...]

Aukeramenaren arabera hauta daiteke bidea? [...]

Calderónen *Bizitza ametsa da* obraren egokitzapenaren erdigunea elkarren mendeko 4 pertsonaiak osatutako ekosistema gatazkatsu batean zentratu du Carles Alfarak: Basilio, Clotaldo, Segismundo eta Rosaura. Haien patuak, harremanak eta tragedia pertsonalak bata bestearekin gurutzatzen dira, eta haien jokabideak erabakitzen dituzte. [...]

Espazio eszeniko soildua, esentziala eta atemporal, munduaren metafora bat da: mundua espetxe gisa. Ziega bat, kubo handi bat, gardena, harresirik gabe, 4 makila



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
EBALUAZIOA

2018ko EKAINA

EVALUACIÓN PARA EL  
ACCESO A LA UNIVERSIDAD

JUNIO 2018

## ARTE ESZENIKOAK

## ARTES ESCÉNICAS

metalikoz eratua, eta han dago Segismundo mundutik bakartua. Bakartze fisiko eta aldi berean afektiboa da.

Agertokiaren atzealdean, ataka bat.

Ziega hori jauregi bihurtzen da (bera ere espetxea, baina urrezkoa), oihal gorri batez —oheko maindirea— iradokia modu sinplean.

Alfarok, bere eszenografian, elementu eta kolore sinbolikoak erabiltzen ditu, gogora ekarle ahaltuak. [...]

Carles Alfaro pertsonaien arteko harremanen topografia bat trazatzen du, entomologo bat balitz bezala arakaturik haien atzera-aurrerak eta distantzia fisiko eta afektiboak, haien artean eboluzionatuz joaten baitira. [...]

Carles Alfaro, bere ikuskizun eredugarrian, Calderónen obraren ikuspegi sendo, garaikide eta unibertsala eskaintzen du, topikoetatik eta irakurketa murriztaileetatik urrun.

Antzerki-irakasgai handi bat da.

Irène Sadowska

**Egokitzapena eta dramaturgia:** Carles Alfaro eta Eva Alarte – **Eszenografia:** Carles Alfaro eta Felype de Lima – **Jantziteria:** Felype de Lima – **Argiztapena:** Carles Alfaro - **Jatorrizko musika eta soinu-espazioa:** Joan Cervero - **Aktoreak:** Vicente Fuentes, Alejandro Saa, Enric Benavent eta Rebeca Valls – **Koprodukzioa:** de Moma Teatre, Teatros del Canal, Valentziako Diputazioa. Apirilaren 19tik maiatzaren 14ra, 2017, Teatros del Canal, Madril



Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
EBALUAZIOA

2018ko EKAINA

EVALUACIÓN PARA EL  
ACCESO A LA UNIVERSIDAD

JUNIO 2018

**ARTE ESZENIKOAK**

**ARTES ESCÉNICAS**

## **B AUKERA**

### **Iruzkina eta azterketa**

*Hiru xistera*

Autorea: Miguel Mihura.

DIONISIO. Bai. Ezkondu egingo naiz, baina gutxi...

PAULA. Zergatik ez zenidan esan...?

DIONISIO. Ez dakit. Susmoa nuen ezkontzea irrigarria zela... Ez nuela ezkondu behar...! Orain ikusten dut ez nenbilela oker... Baina ni ezkontzekoa nintzen, zeren eta bizitza osoa eman baitut herri txiki eta triste batean, eta pentsatzen bainuen alai egoteko ezkondu beharra zegoela lehenengo neskarekin zeini, elkarri begiratzean, bularra pilpiratuko baitzitzaion samurtasunez... Nik biziki maite nuen nire andregai... Baina, orain, ikusten dut nire andregaiarengan ez dagoela ni bila nenbilen alaitasuna... Nire andregaiari ez zaio gustatzen karramarroak jatera joatea itsasoaren aurrean, eta ez da dibertitzen hondarretan sumendiak egiten... Eta igerian ez daki... Uretan, garrasi irrigarriak egiten ditu... Honela: «Ai! Ai! Ai!» Berari gustatzen zaion gauza bakarra pianoaren ondoan jarri eta *Perla-arrantzalea* kantatzea da. Eta *Perla-arrantzalea* oso itsusia da, Paula. Berak kerubin-ahotsa du, eta honela egiten du: (Kantatu egiten du.) Tralarala... piri, piri, piri, piri... Eta ni ez nengoen ohartuta kerubin-ahotsak harrokeriaz beteta daudela eta badirela, berriz, gramofono-diskoak «Maita nazazu abenduan maitatzean maitatzen nauzun bezala» izenburua dutenak eta espiritua xalotasunez eta arrisku-saltoak egiteko gogoz betetzen digutenak... Ez nekien, ezta ere, zu bezalako emakumeak zeudenik, elkarrekin hitz egiten dugunean bihotza pilpiratzen ez zaienak baina ezpainak pilpiratzen zaizkienak etengabeko irribarre batean... Ez nekien tutik ere. Musika-kioskoaren ondoan txistuka paseatzen besterik ez nekien... Ezkontzekoa nintzen denak hogeita zazpi urtera iristean ezkontzen direlako beti... Baina ez naiz ezkonduko, Paula... Ezin dut arrautza frijiturik jan goizeko sei eta erdietan...!

PAULA. (Dagoeneko sofán eseria.) Esan dizu jada gizon bibotedun horrek arrautza uretan pasatuak egingo dituztela...

DIONISIO. Baina nik arrautza uretan pasatuak ere ez ditut gustuko! Nik kafesnea besterik ez dut gustuko, ogiarekin eta gurinarekin! Ni bohemio izugarria naiz! Eta xelebreena zera da, hori ez dudala jakin zu etorri zinen gau honetara arte... eta beltza eta emakume bizarduna ere etorri diren gau honetara arte... Baina ni ez naiz ezkonduko, Paula. Ni zurekin joango naiz eta hiru xisterarekin joko malabarrak egiten ikasiko dut...

PAULA. Hiru xisterarekin joko malabarrak egitea oso zaila da... Lurrera erortzen dira beti...

DIONISIO. Dantzan ikasiko dut, zuk dantzan egiten duzun bezala eta Bubyk dantzan egiten duen bezala...

PAULA. Dantzan egitea zailagoa da oraindik. Zangoak guztiz minberatzen dira, eta ia ez du dirurik ematen bizitzeko...





Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
EBALUAZIOA

2018ko EKAINA

EVALUACIÓN PARA EL  
ACCESO A LA UNIVERSIDAD

JUNIO 2018

## ARTE ESZENIKOAK

## ARTES ESCÉNICAS

DIONISIO. Nik pazientzia hartuko dut, eta lortuko dut behi-burua eta krokodilo-isatsa izatea...

PAULA. Are nekezagoa da hori... Eta, gero, isatsa erabat oztopagarria trenez bidaiatzen denean...

(DIONISIO haren ondora joan eta eseri egin da.)

DIONISIO. Ohiz kanpoko zerbait egingo dut zurekin joan ahal izateko!... Beti esan didazu mutil zoragarria naizela!...

PAULA. Eta halakoa zara. Hain zara zoragarria, non ordu gutxiren buruan ezkontzekoa zaren, eta nik ez nekien...

DIONISIO. Oraindik bada astia. Hau guztia alde batera utzi, eta Londresa joango gara...

PAULA. Zuk ba al dakizu ingelesez?

DIONISIO. Ez, baina Londresko herri batera joango gara. Londresko jendeak ingelesez egiten du denak aberats-aberatsak direlako eta diru asko dutelako ergelkeria horiek guztiak ikasteko. Londresko herrietako jendea, berriz, pobreak direnez eta gauza horiek ikasteko dirurik ez dutenez, zuk eta nik bezala hitz egiten dute... Munduko herri guztietan bezala hitz egiten dute! Eta zoriontsu dira!...

PAULA. Baina Ingalaterran detektibe gehiegi dago!...

DIONISIO. Habanara joango gara!

PAULA. Habanan platano gehiegi dago...

DIONISIO. Basamortura joango gara!

PAULA. Hara joaten dira atsekabetzen diren guztiak, eta basamortuak, orain, jendez eta igerilekuz beteta daude.

DIONISIO. (Tristaturik.) Orduan, kontua da zuk ez duzula nirekin etorri nahi.



## B AUKERA


### Antzerki-teoriaren edo kritikaren gaineko testu bati buruzko iruzkina

“Godoten zain” obraren kritika.

Autorea: Samuel Beckett · Zuzendaria: Pablo Ibarluzea (Compañía Tornado)

Berria · Agus Pérez (2014ko martxoaren 11)

[https://www.berria.eus/paperekoa/1542/034/003/2014-03-11/moldaketa\\_emankorrek.htm](https://www.berria.eus/paperekoa/1542/034/003/2014-03-11/moldaketa_emankorrek.htm)



Argazkia: <https://sites.google.com/site/yindeyan/Espectaculos>

### Moldaketa emankorrek

[...]

Ezer baino lehen aitortuko dut Samuel Becketten *Godoten esperoan* dela nire antzerki testu kuttunenetariko bat, gazte-gazte nintzela lehendabizikoz ezagutu nuenetik. Harrez geroztik behin baino gehiagotan ikusi dut, batzuen zein besteen eskutik, baina oraingo hau benetan diferentea da, antzezleek eta zuzendariak bete-betea asmatu dutelako ezusteko tonu umoretsuan.

Taula gainean Pako Revueltas, Aitor Fernandino, Patricia Urrutia eta Jon Zumelaga aritu dira Vladimir, Estragon, Pozzo eta Luckyren roletan, lehenengo biak Toy Story filmeko protagonistak bezala jantzita, eta gehienetan jatorrizko testuari atxikita ibili dira, baina beren barne jarrera jostagarriak ikuspegi berri bat eman dio lanari, eta, are gehiago, indartu egin du jatorrizko testuaren kutsu existentzialista gogorra. Biziberritze prozesu horretan funtsezkoak izan dira eszenatoki erabat hutsa —obrako zuhaitz ezaguna ere ez dago— eta lau antzezleen gaitasun komiko eutsia, baina, beste ezeren gaitetik, jatorrizko obran txertatutako dramaturgia-ekarpenek eta dialogo sormentsuek eman diote distira berria Beckettek marrazturiko panorama latzari. [...]

Agus Pérez

**Zuzendaritza:** Pablo Ibarluzea - **Aktoreak:** Jon Zumelaga, Patricia Urrutia, Pako Revueltas eta Aitor Fernandino. - **Argiztapena:** Zigor Gorostiola. - **Jantziteria:** Enriqueta Vega (Arriaga Antzokiaren laguntzarekin) · **Produkzioa:** Pabellón 6 eta YindeYan.



## ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

---

### **1.- Alderdi orokorrak**

2016ko abenduaren 22ko ECD/1941/2016 Aginduak zehazten du zer ezaugarri, diseinu eta eduki izan behar dituen unibertsitatera sartzeko Batxilergoko ebaluazioak 2016/2017 ikasturtean (2016ko abenduaren 23ko BOE).

Batxilergoko titulua edo haren baliokideren bat dutenentzako probaren helburua hau da: ikaslearen heldutasun akademikoa objektiboki balioestea, eta Batxilergoan eskuratutako ezagutzak eta gaitasuna eta graduko unibertsitate-irakaskuntza ofizialak egiteko gaitasuna baloratzea.

2016ko irailaren 6ko 127/2016 Dekretuak EAEko Batxilergorako berezko curriculum ezartzen du. Curriculum hori dago indarrean gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan, estatuko oinarrizko curriculum ezartzen duen araudian ezarritakoaren kalterik gabe. Horrenbestez, 127/2016 Dekretuaren II. eranskinean ezarritakoa du erreferentziatzat Arte Eszenikoen azterketak.

[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberri\\_2020/es\\_2\\_proyec/adjuntos/Decreto\\_127\\_2016\\_bach\\_c.pdf](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberri_2020/es_2_proyec/adjuntos/Decreto_127_2016_bach_c.pdf)

Geroago, Hezkuntza Sailak eduki-blokeen eta adierazleen (edo ebaluazio-estandarren) garapen osoa argitaratu du, orientagarri izan dadin. Helbide honetan dago gai bakoitzaren curriculum osoa:

[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberri\\_2020/es\\_2\\_proyec/adjuntos/Curriculum\\_completo\\_bachiller.pdf](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberri_2020/es_2_proyec/adjuntos/Curriculum_completo_bachiller.pdf)

Batxilergoko curriculumean oinarrizko eskumenak sartu direnez, justifikatuta dago *egiten jakitera* bideratutako ariketak proposatzea, ahalik eta modurik objektiboenean neurtu ahal izateko ikasleak arlo hauetan eskuratutako gaitasuna: arte eszenikoak arte-agerraldi gisa eta fenomeno unibertsal gisa ulertzea, eta obra eszenikoen eta haien autore eta emaitza nabarmenen ezagutza historiko, kultural, soziologiko eta estetikoak.



## ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

### 2. – Espezifikazio-matrizea

<b>Eduki-blokea</b>	<b>Ikasketa-estandar ebaluagarriak</b>
<b>1. blokea.</b> Arte eszenikoak eta haien testuinguru historikoa.	<ul style="list-style-type: none"><li>- Ingurunean dagoen ikuskizun eszeniko bakoitza identifikatzen du haren ezaugarrien arabera.</li><li>- Antzezpen mota bakoitzaren ezaugarriak azaltzen ditu, hiztegi espezifikoa eta egokia erabiliz.</li></ul>
<b>2. blokea.</b> Adierazpen eta komunikazio eszenikoa.	<ul style="list-style-type: none"><li>- Zuzen eta zehatz erabiltzen ditu adierazpen eta komunikazio eszenikoan parte hartzen duten elementuei dagozkien kontzeptu guztiak.</li></ul>
<b>3. blokea.</b> Interpretazioa arte eszenikoetan.	<ul style="list-style-type: none"><li>- Interpretazioaren teoriak ezagutzen ditu, eta modu arrazoituan azaltzen.</li></ul>
<b>4. blokea.</b> Antzezpena eta eszenaratzea.	<ul style="list-style-type: none"><li>- Zehazki identifikatzen ditu rolak eta rol bakoitzaren berezko egitekoak.</li></ul>
<b>5. blokea.</b> Ikuskizun eszenikoak jasotzea.	<ul style="list-style-type: none"><li>- Testu dramatikoaren eta antzerki-ikuskizunen ezaugarriak identifikatzen ditu, eta gogoetak egiten ditu, espiritu kritikoz, haien ezaugarri eta oinarriei buruz.</li><li>- Kritika eszenikoak egiten ditu, zorrotz eta sendo, terminologia egokia erabiliz.</li><li>- Fenomeno artistikoaren konplexutasuna ulertzen du, eta bere ondorioak ateratzen ditu gaian eskuratutako ezagutza berriro landuz.</li></ul>

### 3. - Ebaluatzeko irizpideak

2016ko irailaren 6ko 127/2016 Dekretuan gai honi buruz dauden ebaluazio-irizpideak hartuko dira erreferentziatzat proba zuzentzeko eta baloratzeko. Proposatutakoaren artean, hauek azalduko ditugu, proposatutako ariketa-ereduan duten garrantzia dela eta:

#### **1. Arte eszenikoen oinarrizko kontzeptuen eta antzerkiaren historiaren ezagutza sendoa eta kritikoa frogatzea bere produkzio eszenikoan erabiliz.**

- Ikuskizun eszenikoen modalitate guztien aldiak, autoreak eta obra nabarmenak ezagutzen eta kokatzen ditu.
- Arte eszenikoen teknizismoak ezagutzen eta aplikatzen ditu.



## ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

- Ondare eszenikoaren alderdiak integratzen ditu berak sortutako ikuskizun batean.
  - Euskal antzerkiaren historiaren eta jardueraren alderdi bereizgarriak ezagutzen ditu.
- 2. Identifikatu, ulertu eta azaldu egiten ditu antzezpen-forma bakoitzaren eta ikuskizun eszenikoaren oinarrizko ezaugarriak askotariko tipologiako obren azterketaren bidez.**
- Arte eszenikoen generoak identifikatzen ditu.
  - Fenomeno eszenikoaren termino espezifikoak identifikatzen eta erabiltzen ditu.
  - Ingurunean dagoen ikuskizun eszeniko bakoitza analizatzen du bere premien arabera.
- 3. Ekintza dramatikoa berregiteko, pertsonaiak diseinatzeko eta egoerak eta eszenak konfiguratzeko teknikak ezagutzea, eta proposamen eszenikoetan erabiltzea.**
- Era askotako antzerki-testuak moldatzeko eta berregiteko teknikak ezagutzen eta erabiltzen ditu.
  - Antzerki-gidoiak idazten ditu berezko markak zainduz.
  - Pertsonaiak eraiki eta era guztietako egoeretan kokatzen ditu, eta bakoitzaren berezko ekintzak garatzen.
- 4. Eszenaratze-proiektu batek dituen rol, prozesu eta faseak ezagutzea eta ulertzea, eta banako bakoitzaren atazak eta erantzukizunak baloratzea.**
- Eszenaratze-proiektu batek behar dituen rol guztien funtzioak ezagutzen ditu.
  - Askotariko atazak egiten ditu eszenaratze-proiektu batean.
  - Aintzat hartzen du konpromisoa ikuskizun eszenikoak sortzean eta erakustean.
- 5. Era guztietako testu dramatikoak eta ikuskizunak analizatzea eta iruzkinak egitea, gogoeta-jarreraz eta espiritu kritikoz.**
- Antzerki-testuen ezaugarri eta baliabide dramatikoak analizatzea eta iruzkinak egitea.
  - Antzerki-ikuskizunen ezaugarriak identifikatzen ditu, eta haiei buruzko gogoeta egiten, espiritu kritikoz.
- 6. Errealitate artistikoei buruzko oinarrizko ikerlanak egitea.**
- Lanak egiten ditu errealitate artistikoak ezagutzeko.
  - Bere ideia eta proposamen eszenikoak eraikitzen ditu besteren erduetatik abiatuta.
  - Autoretzaren eta sortze-lizentzien kontzeptua ezagutzen eta betetzen du.



## ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

### 7. Adierazpen artistiko batzuk ezagutzea eta haiei buruzko iruzkinak egitea, gogoeta-jarreraz eta espiritu kritikoz, batez ere unekoak eta bere ingurukoak.

- Ikusle gisa joaten da bere inguruko adierazpen artistiko batzuk ikustera.
- Obra klasiko eta garaikideak irakurtzen ditu begirada ludikoa eta espiritu kritikoa erabiliz.
- Uneko jarduera artistikoen ezaugarriak ezagutzen ditu.
- Antzerki-ikuskizunen iruzkinak egiten ditu, jarrera kritikoz

### 4.- Kalifikazio-irizpideak

Probaren A eta B aukerek atal berak dituzte. Probak antzerki-obra edo -pasarte bat izango du beti, eta, harekin batera, galdera sorta bat, eta ikasleek, modu egokian erantzungo badute, pentsamendu kritikorako eta gogoetarako gaitasuna eta heldutasuna izan behar dute. 90 minutuko iraupena izango du, eta hiru atal izango ditu.

#### 1. atala. Obraren iruzkina eta analisisa (4 puntu)

Alderdi hauen arabera egin behar dira iruzkina eta analisisa:

- a) Obraren estilo- eta argumentu-ezaugarrien azterketa.
  - Antzerki-generoa (0,5 puntu).
  - Argumentua eta obran ageri den gatazka nagusia (0,5 puntu).
  - Iritzi pertsonala, aztertutako obrari buruzko argudio teknikoetan oinarritua (0,5 puntu).
  - Argumentu horrek gaurkotasuna duen ala ez (0,5 puntu).
- b) Egoera eta testuinguruaren karakterizazioa.
  - Obraren fitxa: egilea, garaia, kokapen geografikoa (0,5 puntu).
  - Egilearen ideia artistikoak (0,5 puntu).
  - Aزتutako obra zer alderdi soziokultural eta estetikotan kokatzen den (0,5 puntu).
  - Garai horretako antzerki- eta arte-korronteak (0,5 puntu).

Antzerki-obraren iruzkinean eta analisisian, hauek balioetsiko dira: koherentzia eta kohesioa, aberastasun lexikoa, hizkuntza-adierazpen egokia, zuzentasun ortografikoa eta gaiaren oinarriari buruzko ezagutzak.

#### 2. atala. Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu labur bati buruzko iruzkina (3 puntu)

Testu-iruzkina orri betekoa izango da gehienez, eta alderdi hauek aztertu behar ditu:

- Testuko ideia nagusiak eta bigarren mailako ideiak identifikatzea (1 puntu).
- Testuan agertzen diren zenbait hitz edo termino tekniko estetiko edo interesgarri adieraztea eta azaltzea (1 puntu).
- Testuan ageri diren ideiei buruzko iritzi pertsonala, zure eszenaratze-esperientzietan oinarritua (1 puntu).



## ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

---

### 3. atala. Termino teknikoetarako buruzko galderak (3 puntu)

Erantzunak argiak eta laburrak izan behar dute. Bost lerro nahikoak dira bakoitzeko. Zuzentasun terminologikoa eta sintaktikoa balioetsiko da, eta 0,5 puntu emango zaio bakoitzari.

### 4.- Obra gomendatuak

1. Aristofanes: *Lisistrata*.
2. W. Shakespeare: *Hamlet*
3. Cervantes: *Gauza zoragarrien erretaula*
4. Calderón de la Barca: *Bizitza ametsa da*
5. Henrik Ibsen: *Panpinen etxea*
6. O. Wilde: *Ernesto izatearen garrantzia*
7. M. Mihura: *Hiru xistera*
8. R.M. del Valle-Inclán: *Buhame-argiak*
9. Lorca: *Bernarda Albaren etxea*
10. Bertolt Brecht: *Hirugarren Reicharen izua eta miseria («Furcht und Elend des Dritten Reiches»)*
11. Samuel Becket: *Godoten zain*
12. Harold Pinter: *Maitalea*
13. Jordi Galceran: *Gronhölms metodoa*
14. Juan Mayorga: *Azken lerroko mutila*